



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO JARDUEREN BIDEZ, BOLUNTARIOTZAREN BIDEZ ETA MENDE TASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ZAIN TZAILEENTZAKO LAGUNTZA PSIKOSOZIALAREN BIDEZ FAMILIA BARRUAN MENDE TASUNARI LAGUNTZEKO PROGRAMA, 2017

Gizarte Ekintza Saila

XEDEA

Norgehiagokarik gabeko araubidean, bermatu ahal izateko modu homogeneoan garatzen dela familiaren baitako mendetasun-egoerei arreta emateko programa, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, mankomunitate eta partzuergoek egingo dituzten prebentzio-jardueren, boluntariotzaren eta mendeko pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzako laguntza psikosozialaren bidez

ONURADUNAK

Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, mankomunitate eta partzuergoak izango dira; horretarako, honako hau erabaki behar dute: bakoitzari dagokion lurralde-eremuaren barruan, autonomia pertsonala sustatzeko jardueren bidez, boluntariotzaren bidez eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzako laguntza psikosozialaren bidez familia barruan mendetasunari laguntzeko programaren prestazioak egitea Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.

EPEA ETA TOKIA

Aurkezteko epearen bukaera: **2017/09/15**

TOKIA:Gizarte Ekintza Saileko Prestazioen eta Diru-laguntzen Zerbitzuan (Lersundi kalea, 14, Bilbo, 48009), edo 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan zehaztutako erregistro edo bulegoetako edozeinetan (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legea da hori).

DOKUMENTAZIOA

Eskabideak —2. eranskinean jasotako eredu normalizatuaren arabera eginak— agiri hauekin batera aurkeztu behar dira:

1. Erakundeko organo eskudunak diru-laguntza eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

2. Bankuko kontuaren fitxa; erakundeak zein hark aukeratutako banku-erakundeak behar bezala zigilatuta eta sinatuta aurkeztu behar da, 3. eranskineko ereduaren arabera.

3. Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, non adieraziko den erakundeak egunean dituela indarrean dauden xedapenek Gizarte Segurantzarekiko ezartzen dizkioten betebeharrak.

4. Programa forala erakundearen lurralde-eremuan gauzatzeko proiektua, urte natural baterakoa: hau da, gauzatuko den urteko urtarrilaren 1ean hasi behar da.

5. Sarrera eta gastuen aurrekontua, azpiprogramen araberakoa, gauzatze-epari dagokiona, 4. eranskinean jasotzen den ereduarekin bat. Toki-erakundeak hartarako gaitasun nahikoa duen pertsonak sinatu behar du eskabidea, eta honako hauek ziurtatuko ditu:

1. Erakundeak bete egiten ditu oinarri arautzaile hauetan ezarritako betekizun guztiak.

2. Eskabidean adierazitako datu guztiak egiazkoak dira; orobat hitz ematen du datuok egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduera guztiak erraztuko dituela eta eskabidea aztertzeko eskatzen zaion informazio osagarria emango duela.

3. Ez dago diru-laguntza baten onuradun izateko debekuegoeretakoa batean ere; egoera horiek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12.2 artikuluan jasotzen dira.

4. Udal-mugarteko (bat edo gehiagoko) biztanle kopurua, azken errolda ofizialaren araberakoa.

5. Zerga-betebeharrak, zuzenbide publikoko gainerakoak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12.2 e) artikuluan araututakoaren arabera. Eskabidea aurkezten denean, diru-laguntza ematen den unean, betebeharra aitortzen den unean

eta ordainketa egiten denean, une horietan guztietan bete behar da baldintza hori, eta hala justifikatuko da espedientean, Ogasun eta Finantza Sailak erabakitzen duen moduan.

ARAUDI ERREGULATZAILEA

[Bizkaiko Foru Aldundiaren 90/2017 FORU DEKRETUA, uztailaren 4koa. Honen bidez, norberaren autonomia sustatzeko jardueren bidez, boluntarioen bidez eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen zainzaileentzako laguntza psikosozialaren bidez, familia barruko mendetasunari laguntzeko Zainduz programa forala Bizkaiko Lurralde Historikoan 2017. urtean garatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.\(2017/07/10 BAO\).](#)